

Hastapeneko surf ikastaroaren argazkiak

2015/06/08

12:30etan genuen hitzordua Donibane plazan, Zarauzko Surf Eskolak bere egotza duen lekuan. Neoprenoa jantzi genuen, surf ohola hartu eta hondartzara.

Egun zoragarria egiten zuen, nahiz eta itsasoak nahasi samar hartu gintuen. Mikel eta Haritz bezalako bi profesional handi ondoan izateak segurtasuna ematen zigun, ¡ez zegoen beldurrik! Hondarrean lehen argibideak jaso genituen. Oinarrizkoa bagenekien hasteko eta ez zegoen galtzeko astirik, beraz...uretara!

Hurrengo bi orduetan ikaragarri disfrutatu genuen. Olatuekin asko borrokatu eta gero, gure teknika doitzen joan ginen eta azkenean olaturen baten gainean joateko gai ere izan ginen, ¡zutik gainera!



Hemen uzten ditugu argazki batzuk ederki pasa eta oso ondo egin genuela frogatzeko.

Irailean errepikatuko dugu...¡animatzen zara?

